


2023ko Berdintasun Planaren Memoria Txostena

[2023ko abendua]




Aurkibidea

1.	SARRERA eta AURREKARIAK	1
2.	BETETZE-MAILA ETA EBALUAZIOA	2
3.	BATZORDEAREN EBALUAZIOA	5

1. SARRERA eta AURREKARIAK

Getariako Udalak 2021 eta 2022 urteetan I. Berdintasun diagnostikoa osatu eta plana diseinatu zuen. 2023tik aurrera implementazioa abiatu du, urtez urtekako Gestio Plan bat sortu eta horri jarraituz. Prozesu osoa Emun aholkularitzaren bidelaguntzarekin burutu du.



2023. urtea bukatu den honetan, Berdintasun Planaren lehen implementazio urtea egikaritu da; hori horrela, txosten honek 2023an garatutako planaren inguruko memoria jasoko du.

Behin I. plana bukatuta, planaren ebaluazio fase batean sartuko ginateke, 4 urteetan egindako lana baloratu, uneko argazki berri bat eskuratu, eta aurrera begirako helburuak zehazteko. Memoria hau balorazio horretan ere lagungarria izan daitekeela deritzogu.

2. BETETZE-MAILA ETA EBALUAZIOA

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, 2023ko ekintzen betetze maila oso ona izan da, %91koa, hain zuzen:

1. Taula: Getariako Berdintasun planaren 2023ko betetze maila ardatz, helburu eta ekintzaka

	ARD.	BETETZE MAILA	BALORAZIO KUALITATIBOA
1. GOBERNU ONA			
1.1. HELBURUA: BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO EGITURAK ANTOLATU ETA ELKARLAN BIDEAK GARATU		%83	
1.1.1. Berdintasunerako Talde Eragilea sortu eta hiru hilean behin koordinazio eta jarraipen bilerak burutu.	Alkatea eta idazkaria	%100	<p>Talde eragilearen 3 bilera egin dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gestio planaren aurkezpena - Jarraipen bilera - Urtearten itxiera eta 2024ko gestio planaren lanketa abiatu. <p>Deialdiak idazkariak eta alkateak egin dituzte eta bilerak emuneko aholkulariak gidatu ditu.</p> <p>Horrez gain, Emuneko aholkulariarekin lan taldekako online bilerak burutu dira. Gutxi gora behera hilabeteko/bi hilabeteko maiztasunarekin. Hala ere, beharren arabera maiztasun hori intentsifikatu edo lausotu da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Alkatea eta idazkaria: 6 bilera - Kultura eta Kirol zinegotzia eta arduradun teknikoa: 5 bilera - Ongizate zinegotzia eta gizarte langilea: 9 bilera
1.1.2. Udal langileen arteko koordinazio gunea sortu eta urtean bi aldiz (martxoan eta urrian) egindako lanen berri eman eta ekarpenak jaso.	Alkatea eta idazkaria	%50	<p>Udal langileen arteko ohiko batzarra baliatu da honetarako. maiatzean alkateak urteko gestio planaren aurkezpena burutu zuen. 2024ko Urtarrilean egingo da 2023ko balorazioa eta 2024ko Gestio Planaren aurkezpena.</p> <p>Hurrengo urtean bilera kopurua eta epeak berrikusi behar dira. Orokorrean planak 2023an langileengan inpaktu txikia izan du.</p>

<p>1.1.5. Berdinbidean-en parte hartzen jarraitu.</p>	<p>Alkatea</p>	<p>%100</p>	<p>Orain arteko bilera sistemarekin jarraitu da. Haritz ere bileretan parte hartzea adostu da eta hala hasi da. 2024an Emuneko aholkulariak ere hartuko du parte Getariako planari buruzko bileretan.</p>
<p>1.2. HELBURUA: POLITIKARIAK ETA LANGILEAK BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO TREBATU</p>			
<p>1.2.1. Talde eragileko kideen prestakuntza beharrak (orokorrak eta espezifikoak) zehaztu eta garatu: kideak berdintasun plana garatzeko gaitzea.</p>	<p>Alkatea eta idazkaria</p>	<p>%100</p>	<p>Talde Eragilearen 1. Bileran lan planteamendua aurkeztu zen eta inplementazioan zehar baliatuko diren tresnak aurkeztu ziren (excela). Ondoren, banakako zein taldeko bilera guztietan tresna hori baliatu da, taldekideek beronen erabilerarekin familiarizatzeko helburuarekin. Planaren jarraipena ere tresnaren bidez egite da.</p> <p>Horrez gain, planeko material guztia biltzeko online fitxategi partekatu bat sortu eta elikatu da. Taldekide guztiek dute sarbidea.</p>
<p>1.2.2. Emakundek, IVAPek, Berdinbideanek... urtero eskainitako ikastaroetatik, ahal dela, gutxienez bat gauzatu langile eta politikari guztiek, gaiaren eta profilararen arabera. <i>Ekintza honek 1.4.1., 3.2.4., 4.1.4. eta 4.2.3. ekintzekin lotura du.</i></p>	<p>Alkatea eta idazkaria</p>	<p>%100</p>	<p>Formazio eskaintzaren azterketa egin da eta udal langileen adinaren araberako zerrenda osatu da, formazio eskaintza nori bideratu definitzeko etorkizun hurbileko jubilazioak kontuan hartuz. 2023an formazio orokorra (komunikazio ez sexista) soilik eskaintzea adostu da. Formazio eskaintza baloratu ostean 2024rako hauek erabaki dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Udaltzain berriei 15 orduko gizonduz online formazioa proposatzea - Gizarte langileari eta udaltzain bati Jabetuz formazioa proposatzea <p>Horrez gain, 2023an langile guztientzat komunikazio ez sexista formazioa burutuko da.</p>
<p>1.3. HELBURUA: UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISO POLITIKOA ADIERAZI ETA EMAKUMEEN PRESENTZIA BULTZATU</p>			
<p>1.3.1. Esanguratsuak diren egunetan (Martxoaren 8a, Ekainaren 28a, Azaroaren 25a...) berdintasunaren aldeko aldarria egitea. <i>Ekintza honek 2.2.1. eta 4.3.3. ekintzekin lotura du.</i></p>	<p>Alkatea eta idazkaria</p>	<p>%100</p>	<p>Adierazpen instituzionalak egin zen martxoaren 8an: lotura. Maiatzak 17an eta Ekainak 28an LGTBI+ bandera jarri zen udalean. Azaroak 25ean Eudelen kanpaina zabaldu da.</p>
<p>1.3.2. Udalak dituen komunikazio euskarrien bidez (sare sozial, webgune...) berdintasun gaitan garatzen dituen ekimenen berri eman.</p>	<p>Alkatea eta idazkaria</p>	<p>%75</p>	<p>Komunikatutakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Planaren onarpena: Urola kostako hitza, Artzape, Diario Vasco - Martxoak 8ko adierazpena: udaleko webgunean - Udazkeneko egitaraua: Urola kostako hitza, Artzape <p>Komunikazioa presente egon bada ere, ez zaio jarraipen berezirik egin komunikazio hori jasotzeari. Hurrengo urterako erronka hori gehiago zaintzea izango da.</p>

1.3.3. Udalak egiten dituen agerraldi publikoetan ordezkaritza parekidea bermatu.	Alkatea eta idazkaria		Oro har, ordezkaritza parekatua bilatu da, hala ere, ez da jarraipen edo/eta behaketarik egin eta ondorioz ez dugu ekintza honen betetze mailaren daturik.
1.3.4. Enplegu publikoko lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautapen prozesuetako epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzea	Alkatea eta idazkaria	%0	Aurten ez zaio ekintza honi heldu.
1.4. HELBURUA: KOMUNIKAZIO EZ SEXISTA ETA INKLUSIBOA GAUZATZEKO NEURRIAK HARTU		%100	
1.4.1. Hizkera ez sexista lantzeko formazioa eskaini langileei. <i>Ekintza honek 1.2.2. ekintzarekin lotura du.</i>	Alkatea eta idazkaria	%100	Azaroak 9an bi orduko formazio saio bat burutu zen. Emuneko aholkulariak eman zuen saioa. Oro har, ondo baloratu da bai saioa eta baita asistentzia ere. Asistentzia: 14 pertsona (12 langile eta 2 udal ordezkari / 3 emakume eta 11 gizon).
1.4.2. Diagnostikoan identifikatutako hizkera sexista zuzendu eta azterketa hori osatu udalaren komunikazio euskarri nagusien azterketa eginez.	Alkatea eta idazkaria	%100	Aldaketak egin dira webgunean. Hala ere, berriro behaketa egin du emuneko aholkulariak eta aldatzeko atal batzuk identifikatu ditu. Horiek eguneratzea da hurrengo urratsa.
1.5. HELBURUA: BERDINTASUN POLITIKAK GARATZEKO AURREKONTUA ESLEITU		%83	
1.5.1. Urtero genero berdintasunera esleitzen den diru kopurua zein den aztertu eta aurrekontu orokorrarekiko zer ehuneko bideratzen den kalkulatu.	Alkatea eta idazkaria	%100	Jarraipenerako excela sortu da eta bertan jaso dira 2023ko eta 2024ko datuak.
1.5.2. Udal aurrekontuetan genero berdintasunerako partida izenduna sortu (egungo partidatik adinekoen izendapena kendu) , eta baloratu zein zerbitzutan kokatuko den eta zer kontzeptu sartuko den bertan.	Alkatea eta idazkaria	%50	Partida banatua sortu da. 2023an ez da aztertu berdintasuneko partidatik ordaindutakoak. Ez da azterketa egin, baloratu horren beharra.
1.5.3. Berdintasunerako aurrekontua emendatzen joan: lehenengo urtean egungo aurrekontua bikoiztu, guztizko aurrekontuaren %0,28 izatera iritsiz, eta hurrengo urteetan gutxienez %0,28 mantendu eta ahal dela handituz joan, %1 edo handiagoa izatera iritsi arte.	Alkatea eta idazkaria	%100	2024ko aurrekontua %0,32koa izango da.

1.6. HELBURUA: BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA GARATU ETA EBALUATU		%100	
1.6.1. Berdintasun plana herritarrei aurkeztu.	Alkatea eta idazkaria	%100	Berdintasun plana plenoan onartu zen eta komunikabideei prentsa oharra bidali zitzairen. Hemen publikatutako albisteak: Artzape , El Diario Vasco , Urola Kostako Hitza
1.6.2. Berdintasun plana langile guztiei jakinarazi.	Alkatea eta idazkaria	%100	Udal langileen ohiko batzarra baliatu zen honetarako (1.1.2. ekintzan ere jaso)
1.6.3. Berdintasun planari jarraipena egiteko tresna bete eta ebaluazioa egin.	Alkatea eta idazkaria	%100	Emuneko aholkulariak kudeatu du tresna. 2023ko Gestio planeko tresna beteta eta itxita dago, eta memoria egina.
2. AHALDUNTZEA			
2.1. HELBURUA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA SUSTATZEA		%100	
2.1.1. Urtero Zarauzko eta Zumaiako jabekuntza eskoletan parte hartu duten Getariako emakume kopuruaren datua jaso.	Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria	%100	Ongizate zinegotzia harremanetan jarri da Zarauzko eta Zumaiako Jabekuntza eskoletako teknikariek. Zumaiako datua soilik jaso dugu eta ez bilatzen genuen mailan (udaberriko eta udakenero ikastaroetako parte hartzaile kopurua). Azken saiakera egingo dugu 2024ko Bestalde, bi eskoletako eskuorriak eskuratu ditugu eta Getariako espazio zehatzetan jarri dira eskuragarri. Ekintza hau sistematizatzea baloratu behar da. Momentuz, urtarrelean eta hurrengo ikastaroen materiala eskatuko diegu.
2.1.2. Gutxienez urtean ikastaro bat antolatu herriko emakumeen interesei erantzunez (interesen berri izateko emakume kolektibo ezberdinekin hartu eman zuzena). <i>Ekintza honek 4.1.5. ekintzarekin lotura du.</i>	Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria	%100	4 ekintza antolatu dira: <ul style="list-style-type: none"> - Menopausiaren inguruko hitzaldia - Menopausiari buruzko antzerki tailerra - Autodefentsa feminista tailerra antolatu da. - Nerabeentzat tailerra Horrez gain, emakume adinduen ahalduntze ikastaroa antolatzeko saiakera ere egin da, baina ez da taldea sortu. 2024an honi beste buelta bat ematea adostu da. <p>Guztien deskargua ekintzen jarraipen fitxan.</p>
2.1.4. Emakume kolektibo ezberdinek (emakume migratuak, landa eremuko emakumeak, aniztasun funtzionala duten emakumeak, ama bakarrak, etab.) jasaten dituzten askotariko diskriminazioak kontuan	Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria	%100	Ekintzak toki irisgarrietan burutzea bilatu da. Horrez gain, askotariko diskriminazioetan arreta jartzeko irizpideak ladu dira. Irizpide horiek nprimatzeko formatuan jarri eta inprimatuta udalean pegatuko dute. Horrez gain, talde eragileari eta gobernu taldeko zinegotzietan bidaliko zaie, ekintzak antolatzean kontuan izateko.

<p>izan eta horiek ekiditeko neurriak hartu antolatzen diren ikastaro eta ekintzetan.</p>			
<p>2.1.5. Emakume ezberdinen arteko sareak sortzen jarraitu (esaterako emakume migratuen eta EHn jaiotakoen artean) eta bertatik irteten diren ideia eta beharrei erantzun.</p>	<p>Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria</p>	<p>%100</p>	<p>Urriari Janari Azoka antolatu da Artzaperekin batera. Oso ondo irten zen. Saretze txiki bat sortzen ari da. Emakumeek gehiago parte hartzen dute.</p>
<p>2.2. HELBURUA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA</p>		<p>%85</p>	
<p>2.2.1. Egun esanguratsuen artetik (Martxoak 8, ekainak 28, Azaroak 25, Maiatzak 17...) urtean behin haietako bat herriko emakumeekin era parte-hartzailean antolatu. Eta egitaraua egun horren aurreko edo ondorengo egunetara ere zabaldu; hitzaldiak, antzerkiak, mahai inguruak, etab. antolatuz. <i>Ekintza honek 1.3.1. eta 4.3.3. ekintzarekin lotura du.</i></p>	<p>Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria</p>	<p>%100</p>	<p>Azaroak 25aren bueltan egitaraua antolatu zen: autodefentsa feminista tailerra, menopausiaren inguruko hitzaldia eta antzerki foroa</p>
<p>2.2.2. Kirol mahaitik kirol ezberdinetan emakumeen parte hartzea sustatzeko ekintzak antolatzen jarraitzea. Emakumeek ere espazio publikoan kirola egin dezaten sustatzeari ere arreta jarritz. <i>Ekintza honek 1.1.4. ekintzarekin lotura du.</i></p>	<p>Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria</p>	<p>%95</p>	<p>Hauek landu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lilatoirako autobusa antolatu - Saltakan korrika taldearekin jarraitu. Taldea indartu da, baina jarraipena egin behar zaio taldearen gidaritzari (Getaria traileko partaideek egiten dute momentuz). - Arraunean nesken taldea sortzeko lanketa egin da: LH6ko taldea osatu da (8-10 neskako taldea) - Kiroldegiko taldeei jarraipena egin: spinning eta arratsaldeko yoga taldeak ez dira sortu, gainerakoak bai. Jarraipena egin da, baina ez da gehienbat emakumez osatutako taldeak babesteko edo indartzeko lanketa berezirik egin eta hainbat talde ez dira sortu. - GFAko Txita ibiltaria programan parte hartu. Horren baitan emakumeei egun batez hainbat ekintzetan dohar parte hartzeko aukera: spinning, saltakal, kiroldegiko instalazioetan, etab.
<p>2.2.4. Haur eta gazteen artean beste kirol eredu bat sustatzen jarraitu, multi-kirolaren eta kirol gutxituak bultzatzearen bidetik.</p>	<p>Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria</p>	<p>%100</p>	<p>Hauek landu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - San Silbestre eredu berria mantendu da. - Jaietan ginkana antolatu da.

			- Gutxienez, eskolako 3 eta 4 mailetako eskola kirola mistora pasatzeko saiakera egin da. Ez da lortu, baina datorren urterako baldintza hobek sortu dira saiakerarekin jarraitzeko (ekimenaren antolaketa guraso elkarteak hartu du gidaritza).
2.2.5. Udaletik bideratutako zein udalaren diru-laguntza bidez finantzatutako kultur ekintzetan emakumeen presentzia bermatzeko neurriak hartu. <i>Ekintza honek 1.8.2. ekintzarekin lotura du.</i>	Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria	%100	Herriko elkarteekin hitzarmenen berritzean emakumeen presentzia bermatzeko eranskina gehitu da. Urtarrilean memorietan baldintzaren betetze mailari jarraipena egingo zaio.
2.2.8. Udalerriko emakumeen historia berreskuratzeko ekimenak antolatu (bekak, ikerketak, ahozko artxibategia, etab.)	Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria	%100	Deialdia egin zen, baina ez hautagairik egon. Urte batzutan beste saiakera bat egingo da.
2.2.9. Burutzen diren jai eta tradizioetako ekintza eta egitarauetako antolakuntza zein egikaritzean genero-berdintasuna bermatzea (jarduerak, ardura banaketak, talde eragileen funtzionamendua...); horretarako, beharrezko denean, eskuragarri dauden baliabideak aztertu (gidak, azterlanak, etab.). <i>Ekintza honek 4.1.3. ekintzarekin lotura du.</i>	Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria	%50	Ekintza hau burutzeko festak eta feminismoa lantzen duten hainbat material batu da. Hori aztertzen ari gara ondoren nola baliatu erabakitzeko.
2.2.10. Herrian eztabaida pizten duten ospakizunak nolakoak izan behar diren herritarrekin batera adosten jarraitzea, beti ere genero-ikuspegia bermatuz.	Gazteria, kirola eta kulturako zinegotzia(k) eta kultura teknikaria	%50	2023an konpartsan izena emateko baldintzak eguneratu dira, eta sexu bereko bi pertsonak izena emateko aukera zabaldu da baldin eta beste sexuko bikote batek ere izena ematen badu aldiberean. Inork ez du aukera hori baliatu. Hala ere, udaletik ez da lanketa edo jarraipen berezirik egin ekintza honi dagokionez.
3. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZECO			
3.1. HELBURUA: HERRITARRAK FEMINISMOAREN INGURUAN SENTSIBILIZATU ETA TREBATZEA		%100	
3.1.2. Probintzia edo erkidego mailan beste erakundeek burutzen dituzten sentsibilizazio kanpainei bultzada eman	Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea	%100	A25ean adierazpen instituzionala egin beharrean Eudelen kanpaina bultzatzea erabaki da. Iritsi den gainerako materiala ere zabaldu da.
3.2. HELBURUA: GENERO BERDINTASUNA OINARRI DUEN HEZKUNTZA EREDUA BULTZATZEA		%100	

<p>3.2.1. Hezkuntza komunitatean dagoeneko martxan dauden eta emaitza positiboak dituzten dinamikak mantendu eta indartzea (adibidez, guraso eskola).</p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>	<p>%100</p>	<p>Guraso eskolarekin jarraitu da 2023an. Ekainean ikasturte amaierako balorazio eta beharren identifikazio bilera egin da eta bertan jasotakotik ikasturte berrirako banakako saio kopurua handitzea adostu da. Horrez gain, ikasturte erdian ere jarraipen bilera bat egitea adostu da, urtarrila/otsailean egingo da hori. Gaztelekuan gazteentzat saioak ere eskaintzen dira. Jarraipen bileran horien jarraipena ere egingo da.</p>
<p>3.2.4. Liburutegiko langileak genero ikuspegian gaitu UEUK edota bestelako erakundeek eskaintzen dituzten ikastaroetan parte hartuz. <i>Ekintza honek 1.2.2. ekintzarekin lotura du.</i></p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>		<p>Ez da ekintza hau landu eta momentuz ez zaio helduko.</p>
<p>3.2.5. Liburutegian antolatzen diren ekintzetan eta eskaintzen den zerbitzuan genero ikuspegia kontuan izaten jarraitu eta bide berriak aztertzea (adib. Feminismoari buruzko apal bat sortu).</p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>	<p>%100</p>	<p>Liburuzainekin bi bilera “informal” egin dira martxoan eta irailean. Ongizate zinegotziaren lehen hartuemana izan da. Udalak antolatu behar zituen ekintzen berri eman zaie. Datorren urtean bilera formal bat egingo dute otsailean (urte hasiera, m8a, etab. Komentatzeko).</p>
<p>3.3. HELBURUA: ETXEKO ETA ZAINZA LANETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE HARTZE OREKATUA AREAGOTU ETA ZAINZA LANETAN DABILTZAN PERTSONEN BALDINTZA DUINAK BERMATZEA</p>			
<p>3.3.4. Udalak antolatzen dituen ekimenetan ordutegiaren egokitasuna zaintzen jarraitu, emakumeek ere parte hartu ahal izateko.</p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>	<p>%100</p>	<p>Zaintza zerbitzua antolatzeko informazioa jaso da: zarautzen eta zumaian hori nola bideratzen duten kontsultatu da. Orokorrean zerbitzu hori gehiegi erabiltzen ez dela ondorioztatu da, eta Getarian sistematikoki ez eskaintzea adostu da. Hala ere, egokitasunaren arabera, ekintza zehatz batzuetan eskaintzeko aukera zabalik uzten da, eta horretarako beharrezko informazioa eskuratu da. Bestalde, antolatu diren ekintzetan ordutegiaren aukeraketa kontzientea eginda, emakumeen parte hartzea sustatzea ere kontuan izanez.</p>
<p>4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK</p>			
<p>4.1. HELBURUA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA LANTZEA</p>			
<p>4.1.1. Urtero Estatu Ituneko diru-laguntzarekin ekintzak aurrera eramanez: sentsibilizazioa eta prebentzioa, aholkularitza, etab.</p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>	<p>%100</p>	<p>Aurten ez da diru-laguntzarik egon, beraz, ekintza hau ez da burutu.</p>

<p>4.1.3. Jaietan indarkeriaren prebentziorako berariazko plangintza egin: puntu morearen aukera baloratu, aurrez indarkeriaren prebentziorako materiala sortu eta banatu, etab. <i>Ekintza honek 2.2.9. ekintzarekin lotura du.</i></p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>	<p>100%</p>	<p>Beste herri batzuetako protokoloak aztertu dira (Irura, Hernani), Getarian zer eta nola egin diseinatzeko. 2023an aurretik egiten zen lanketarekin jarraitu eta sakontu da, ondorioz, Salbatore jaietarako berariazko plangintza burutu da: puntu morea jarri da, egitarauan indarkeria matxistaren aurkako mezua gehitu da, herri sarreran indarkeria matxistaren aurkako kartel handi bat jarri da, tabernetarako kartelak banatu dira, etab. Guztia zehatzago jasota dago <i>Getariako Salbatore jaietan indarkeria matxistaren prebentzioaren lanketarako jarraibideak</i> dokumentuan. Autodefentsa feminista tailer ez mistoa eta gazteekin ahalduntze eta maskulinitate tailer mistoa burutu dira.</p>
<p>4.2. HELBURUA: INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA IZAN DIREN EMAKUMEEI ARRETA INTEGRALA BERMATZEA, AHALDUNTZE IKUSPEGITIK</p>			
<p>4.2.1. Sentsibilizazioan, salaketan zein esku-hartzean lanean jarraitzea eta indarkeria jasaten duten emakumeei tratu egokia bermatzea.</p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>	<p>%100</p>	
<p>4.3. HELBURUA: UDALAK INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO JARRERA IRMOA IZAN ETA ADIERAZTEA</p>			
<p>4.3.1. Udaletik sistematikoki eta publikoki gertatzen diren emakumeen kontrako indarkeria kasuak salatzen jarraitu.</p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>	<p>%100</p>	<p>Udaletik salaketa publikoa egiteko irizpidea adostu da: herriarekin loturaren bat duten kasu publikoak (bertan gertatua, erasotua/erasotzailea herrikoak). 2023an ez da halako kasurik egon.</p>
<p>4.3.2. Udaletik arlo honetan egiten diren ekintzak (protokoloak, gidak, etab.) herritarrei berariaz helarazi.</p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>	<p>%25</p>	<p>Materiala iristen denean hori aztertu eta nola zabaldu erabakitzea adostu da. Hala ere, 2023an ekintza hau ez da berariaz landu.</p>
<p>4.3.3. Egun zehatzetan (M17, A25...) udalaren jarrera azalduz irakurketa publikoa kaleratu eta bestelako komunikazio ekintzak burutu (mezuak udaleko balkoitik, etab.) <i>Ekintza honek 1.3.1. eta 2.2.1. ekintzekin lotura du.</i></p>	<p>Ongizateko zinegotzia eta gizarte langilea</p>	<p>%100</p>	<p>Adierazpen instituzionalak egin zen martxoaren 8an: lotura. Maiatzak 17an eta Ekainak 28an LGTBI+ bandera jarri zen udalean. Azaroak 25ean Eudelen kanpaina zabaldu da.</p>
<p>GESTIO PLANAREN BETETZE MAILA</p>		<p>%91</p>	

3. BATZORDEAREN EBALUAZIOA

Azaroko Batzorde Eragilearen bileran urtearen eta, batez ere, planaren lehen inplementazio urte honetan martxan jarri den funtzionamenduaren balorazioa egin da. Ideia hauek aipatu dira:

- Egindakoarekin gustura eta ekintza plana ia beteta.
- Funtzionamendua ontzat eman da eta hurrengo urtean ere sistema berarekin jarraitzea adostu da: taldekako online bilerak, batzorde eragilearen bilerak, hilabetekako zereginen erreposoa korreo bidez, etab.
- Oro har Emuneko aholkulariaren rolaekin gustura.
- Hobetzeko identifikatu den alderdia: taldekideen autonomian sakontzeko, planaren jarraipen tresnak gehienbat Emuneko aholkulariak kudeatuko baditu ere, gainerako kideek online karpeta partekatua erabiltzea eta elikatzea ere sustatuko du. Beharrezko dutenean dokumentuak bilatzeko eta baliatzeko gai izateko taldekide guztiak.